

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

31. ALDIZKARIA - 2025eko otsailaren 14a (tarifaren aldaketa)

9. ORDENANTZA - ORDENANTZA, DALAREN ZAKURTEGIKO ZERBITZUAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza.

2. artikulua. Zergapeko egintza zakurtegiako ondoko zerbitzuak emateak sortzen du:

-Zakurrak biltzea, oro har:

-Egonaldiak zakurtegian

Ordaindu beharra.

3. artikulua. Zergak ordaindu beharra zerbitzua egitean hasten da. Hori egiten bada alde interesdunak eskaturik, kasu bakoitzerako finkatutako eskubideen ordainketa eska daiteke aurretik.

Subjektu pasiboak.

4. artikulua. Zerbitzuei kasu bakoitzean dagozkien tasak, honako hauek ordaindu behar dituzte: eskatzaileak, edo, zuzenean interesdun izanik, zerbitzuaren onura jaso duten pertsonak, edo Udalaren esku-hartzea derrigortu duten egoeren erantzule direnak.

Tarifak.

5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean heldu dira kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak.

Likidazioa eta diru-bilketa.

6. artikulua. Hona ordainarazpen hauen diru-bilketarako arau bereziak: ordenantza honetako tarifaren arabera sortzen diren tasak Udaltzaingoko diru-bilketa zerbitzuan ordaindu beharko dira. Han ordainketa horien frogagiriak luzatuko dituzte, eta behartuta daude likidatu eta bildutako tasen berri ematera.

Kudeaketa arauak

7. artikulua. Udal zerbitzuek bildutako zakurrak atzera eskuratzeko zakurtegiara jo behar da eta bertan jaso, betiere tasak ordaindu ondotik.

2025eko TARIFAK

(euroak)

I. epigrafea.

Honako tarifa hauek aplikatuko dira txakurak bildu eta Udalaren txakurtegira eramateagatik, eta txakurtegiko egonaldiengatik:

-Txakurak biltzea, oro har	26,50
-Egonaldiak txakurtegian (egun bakoitzeko)	6,00